



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 16a

89. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrek Nafarroako Foru Komunitatean duten egoerari buruzko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina ([2. or.](#)).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrek Nafarroako Foru Komunitatean duten egoerari buruzko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako arartekoaren bulegoak eginiko bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrek Nafarroako Foru Komunitatean duten egoerari buruzko txosten bereziaren berri izan duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Aipatu txostena Foru Araubideko Batzordearen bilera batean aurkez dadin xedatzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrek Nafarroako Foru Komunitatean duten egoerari buruzko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|--|
| <p>I. Sarrera. Txostenaren helburua (3. or.).</p> <p>II. Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak. Kontzeptua eta horien arazoetara hurbiltzea (3. or.).</p> <p>III. Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei eman beharreko babesaren legedi esparrua (4. or.).</p> | <p>IV. Errealitate horren hedadura Foru Komunitatean (6. or.).</p> <p>V. Kanarietatik heldu diren bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren programa (7. or.).</p> <p>1. Aurrekariak (7. or.).</p> <p>2. Programaren diseinua (8. or.).</p> <p>3. Erakunde honek ikertzeko egindako jarduketak (9. or.).</p> <p>a) Familia Zuzendaritza Nagusiaren egoitzara joatea (Haurrentzako eta Nerabentzako Sustapen, Laguntza eta Babes Zerbitzua). Elkarrizketak egitea, dokumentuak eskatzea eta txostenak aztertea (9. or.).</p> <p>b) Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak hartzeko Zabal herrian dagoen zentrorra bisita egitea (10. or.).</p> <p>c) Bizikidetzaren harremanak (12. or.).</p> <p>d) Kezka berezia sortzen duten alderdi nabarmengarriak (12. or.).</p> <p>4. Programari buruzko iritzi nagusia (13. or.).</p> <p>VI. Foru Komunitatean hartuta dauden bidaiderik gabeko beste adingabe atzerritar batzuk (13. or.).</p> <p>VII. Adingabeen iritzia (14. or.).</p> <p>VIII. Herri-salutaritzarekin koordinatzea (15. or.).</p> <p>IX. Ondorioak eta iradokizunak (15. or.).</p> |
|---|--|

I. SARRERA. TXOSTENAREN HELBURUA.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 4/2000 Foru Legeak, uztailaren 3koak, arartekoa gaitzen du Nafarroako Parlamentuari txosten monografikoak edo bereziak aurkezteko, zenbait egoerak hori egiteko bidea ematen badute.

Duela gutxi, parlamentu horretan aurkeztu genuen “Nafarroako administrazio publikoen jarduna adingabeak babesteko” izenburua duen txosten berezia. Txosten horren garrantzia azaltzean, aipatu genuen bertan ez zitzaizela heltzen Nafarroan antzematen hasi garen zenbait arazo espezifikorik, besteak beste, bidaidetik gabeko atzerritar adingabeen kasuari.

Nolanahi ere, gaiari alboko aipamena egin zitzaion. Alde horretatik, txosten berezi horretan egindako gomendioen artean, hitzez hitz honako hau zioen bat zegoen:

“Gizarte Ongizatearen Departamentuko Familia Zuzendaritza Nagusia helduen laguntzarik ez duten adingabe atzerritarrak laguntzeko baliabide bat diseinatu eta abian jartzera bultzatuko dugu, solidario jokatu eta Kanariar uharteetara heltzen diren adingabeak Nafarroan hartzeko...”

Txostena egiten ari ginen garaian azaleratzen ari zen errealitate bati erantzuten zion gomendio horrek: Kanarien bidez nazio lurraldera iristen ziren adingabe atzerritarrak, bidaidetik ez dutenak, hartzeko programa batean parte hartzea Foru Komunitateak, Kanarietako arreta baliabide espezializatuak kolapsatuta eta blokeatuta zeudelako.

Txosten hori aurkezten ari ginen bitartean, errealitate hori azaltzea berariazko helburu izango zuen beste bat egiteko eskatu zitzaigun. Nafarroako arartekoak eskaera onartu zuen, eta, igarotako denbora aintzat hartuta, egokia jo zuen modu berezian aztertzea bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrek gure lurraldean duten egoera.

Azaldutako hori guztia kontuan hartuta, txosten honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (gai honen gaineko eskumenak baititu), Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren bidez, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrei dagozkien arazo espezifiko hauekin lotuta izan duen jokabidea zein izan den eta den egiaztatzea eta sakon aztertzea.

Horri gehitu behar zaio Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babeserako 15/2005 Foru Legeak, abenduaren 5ekoak, 14.3. artikuluan honako hau agintzen duela: “Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak babestea zainduko du egokiak diren neurriak erabakita”. Neurri horien artean, hain zuzen ere, honako hau dago:

“Nafarroako Foru Komunitatean haurrek eta nerabeek duten egoera balioztatzea, legeak aurreikusituen programak eta jarduketak modu eraginkorrean betetzen direla zaintzeko”.

Bestalde, ezin dugu sarrera labur hau amaitu Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuari, Nuevo Futuro, Xilema eta Sin Fronteras elkartei, Zabal kontzejuko lehendakariari eta Herri-salataritzari txosten hau egiteko eman diguten laguntza eta izan duten jarrera eskertu gabe. Halaber, txostenaren helburu diren adingabeek berek egin dituzten ekarpen baliotsuak ere eskertu behar ditugu. Denek era erabakigarrian lagundu dute erakunde honek hemen landu den errealitatearen irudi zehatza egiteko modua izan dezan.

Denbora erreferentziei dagokienez, adierazi behar da, era berean, txosten hau egiten 2008ko ekainaren hasieran amaitu zela. Honenbestez, egokia da ohartaraztea Nafarroako Parlamentuan aurkezten denean balitekeela zenbait datu edo edukiaren gaineko alderdi batzuk desberdinak izatea. Hala eta guztiz ere, ulertzen dugu horrek ez diola kalterik egiten txosten honen funtzioari edo funtsezko birtualtasunari.

II. BIDAIDETIK GABEKO ADINGABE ATZERRITARRAK. KONTZEPTUA ETA HORIEN ARAZOETARA HURBILTzea.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen goi-komisarioak eta Save the Children erakundeak Praktika Onen Adierazpenean emandako definizioarekin bat, bidaidetik gabeko adingabe atzerritar esaten dugunean honako hauei egiten diegu erreferentzia: jatorrizko herrialdetik kanpo dauden hemezortzi urtez azpiko adingabeak, beren gurasoengandik edo ohiko zaintzailearengandik bananduta daudenak.

Haurren Eskubideetarako Nazio Batuen Batzordeak egindako Ohar Nagusi batean, seigarrenean –bidaidetik gabeko eta jatorrizko herrialdetik kanpo gurasoengandik bananduta dauden adingabeen tratuari buruzko ohar nagusia-, ideia hori osatzeko honako definizio hau ematen du: “bi gurasoengandik eta beste senide batzuek bananduta dauden adingabeak eta, legeak edo ohiturak aginduta, adingabea zaintzeko ardura duen pertsona heldu baten zaintzapean ez daudenak”. Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak definizio hori hartu du kide diren estatuei egindako MK/Gom(2007)9 Gomendioan, 2007ko uztailaren 12koan. Hain zuzen ere, bidaidetik ez duten adingabe immigranteen aldeko bizi-proiektuei buruzkoa da gomendio hori.

Europako Erkidegoko zuzenbideak ere kontzeptua zehazteko ardura hartu du. Izan ere, bidaiderek gabeko adingabe atzerritarra definitzeko honako hitz hauek erabiltzen ditu: “kide diren estatuetakoren batera heltzen den hemezortzi urtez azpiko adingabea, bere arduradun den helduaren laguntzarik gabe heldu dena –arduraduna da, edo legeak, edo usadioek eta ohiturek hala agintzen dutelako-, eta bere arduradun den heldu horren zaintzapean benetan egoten ez den bitartean” (Kontseiluaren 2003/9/EK Zuzentaraua, 2003ko urtarrilaren 27koa, eta Kontseiluaren 2001/55/EK Zuzentaraua, 2001eko uztailaren 20koa). Gainera, kontzeptu horretan barne hartzen dira “kide diren estatuen lurraldean sartu ondoren lagunduta egoteari uzten dioten adingabeak”. Bi definizio horiek Europako Kontseiluko 97/C 221/03 Erabakian dute jatorria, 1997ko ekainaren 26koan. Erabaki hori beste herrialde batzuetako bidaiderek gabeko adingabe nazionaleri buruzkoa zen, nahiz eta horrek ez zituen barne hartzen Batasunaren lurraldean sartu ondoren bakarrik gelditzen diren adingabeak.

Gure herrialdera bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrak heltzea egungo immigrazio fenomenoaren testuinguruan sartu behar da. Alde horretatik, gosea igarotzetik eta gerretatik ihes egiteak eragiten du pertsona talde askok beren herrialdeak utzi eta hobeki bizitzeko itxaropenak mukurutuko dituen herrialde batera joatea (horixe adierazten du Nazioarteko Gizarte Zerbitzuak bere aldizkarian argitaratutako “Esbozo de la situación de los niños no acompañados en el mundo” izeneko artikulua. 5. aleko 6.-8. orrialdeetan ageri da).

Oraintsu arte fenomeno hori, oro har, adin nagusikoei lotuta bazegoen ere, egun migrazio subjektu berri bat identifikatu ahal da, eta ez Espainian bakarrik, baizik eta bai Europa osoan ere: adingabeak.

Zergatikoei eta egoerari erreparatzen badiegu, adingabeek ez dute talde homogeneoa osatzen. Adingabeak beren herrialdeetatik ihes egitera bultzatzen dituzten arrazoiak hainbat eta askotarikoak dira: pobrezia, natura hondamendiak, gerrak, familia desegituratzea, erakundearen babesgabatasuna... Zenbait kasutan, gurasoek berek bidaltzen dituzte seme-alabak etorkizun hobea eskainiko dien herrialde batera, azken batean, horrek onura ekarriko diolakoan familia osoari.

Beste adingabe batzuek, gainera, beldurrak bultzatuta egiten dute ihes: esetsiak izateari beldurra, jatorrizko herrialdean gatazka armatu baten edo liskar larrien ondorioak jasateko beldurra edo giza eskubideak bortxatzea eragingo duten egoerak bizi behar izateari beldurra. Alde horretatik badira batik bat adingabeei eragiten dieten zenbait

eskubide bortxaketa. Esate baterako, sexu edo lan esplotazioa, bortxaz errekrutatzea, ablazioa, nahitaez ezkondu behar izatea edo kaltegarriak izan daitezkeen ohiturazko beste praktika batzuk. Errefuxiatuentzako Nazio Batuen goi-komisarioak adierazten duenez, adingabe horiek iheslaritzat hartu ahal dira, eta, hortaz, asiloa ematetik ondorioztatzen den babes berezia hartu ahal dute.

Hala eta guztiz ere, Espainiari dagokionez, Europa hegoaldeko beste herrialde batzuek bezala, asiloan hartzeko herrialde gisa tradizioz ez duenez, bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrak ekonomia arrazoiengatik etorkintzat hartzen ditu. Lan itxaropen nabarmenen ondorioz etortzen dira gehienak Espainiara. Doktrinak adierazi du hori dela beren gizarte arazoaren eta legezkoen jatorria. Beren herrialdean helduak balira bezala bizi dira, horrela jokatzeko dute eta hartzen dituzte; hemen, ordea, sistemak haurrak balira bezala tratatzen ditu, beren ikuspegia ez den beste ikuspegi batetik babesten ditu eta, praktikan, beren migrazio proiektua gauzatzeko eragozten du, ikuspegi hori beren prestakuntza edo osasuna hobetzera bideratuagoa dago beren eta beren familiaren ekonomia egoera hobetzera baino.

Zuzenbidearen ikuspuntutik ere arazotsua da beren egoera, etorkinen taldearen barnean egon arren, bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrak, beren egoera bikoitza dela eta, egoera dialektikokan baitaude: alde batetik, legez kanpoko etorkinak dira –eta horrek eskubideak murriztea dakar-, eta beste alde batetik, adingabeak dira –eta horrek babesa bermatzen die, nahiz eta beti ez datorren bat beraiek nahi edo eskatzen duten laguntzarekin-.

Adingabe horiek familiarik gabe joaten dira atzerrira, legez kanpo, eta Espainian legezko ordezkariarik gabe eta babesik gabe daude. Hori dela eta, ez da zalantzarik gure legedian dauden babes neurriak adingabe horiekin ere erabiltzekoak izatea. Gai horri eskainiko diogu txosten honen hurrengo atala.

III. BIDAIDERIK GABEKO ADINGABE ATZERRITARREI EMAN BEHARREKO BABESAREN LEGEDI ESPARRUA.

Txosten honen helburua ez da adingabearen legedi estatutua sakon eta zehatz aztertzea eta deskribatzea. Helburu horretarako, erakunde honen “Nafarroako administrazio publikoen jarduna adingabeak babesteko” txosteneko bosgarren atalean (legedi esparrua) ezarrita dagoenera jo behar da. Komeni da, ordea, txosten honen azterketaren helburu den taldeari espezifikoki eragiten dioten zenbait alderdi aipatzea.

Lehenago adierazi dugun moduan, adingabe etorkinek babes publikorako eskubidea dute eta, gainera, espainiarrek duten baldintza berberetan dute eskubide hori.

Ondorio hori atera liteke, lehenbizi, Espainiako Konstituzioaren 39.4. artikuluan ezarrita dagoenetik: “beren eskubideak zainduko dituzten nazioarteko itunetan aurreikusita dagoen babesa izango dute hurrek.”

Haurren babesaren gaian, eskubideen babesa areagotu egiten da eta gure Konstituzioak ez du bereizketarik egiten adingabe espainiarren eta adingabe atzerritarren artean. Izan ere, adingabeei buruzko nazioarteko testuek berariaz galarazten baitute inolako bereizkeriarik egiteko aukera. Testu horiek ez dute, era berean, onartzen herritartasuna dela medio egindako bereizkeriarik. Atzerritarren legedian desberdintze edo bereizte elementu moduan sartzen den zertzelada da hori.

Konstituzioak nazioarteko itunetara igortzea haurren babesaren gaian 1989ko Haurren Eskubideen gaineko Nazioarteko Hitzarmenari lotzea dakar. Hain zuzen ere, “Adingabeen eskubidea” multzoaren berri ematen duten printzipio nagusia ezartzen da hitzarmen horretan: adingabearen interes gorena gailenduko da berari eragiten dioten jarduera eta erabaki orotan. Printzipio nagusi hori hitzarmenaren 3. artikuluan dago, eta honako hau adierazten du hitzez hitz:

“Gizarte ongizateko erakunde publiko edo pribatu guztiek, epaitegiek, administrazio agintariek edo legegintza organoek haurren gainean hartzen dituzten neurri guztietan aintzat hartuko den oinarritzko pentsakizuna haurren goi interesa izango da.”

Immigrazioari espezifikoki dagokionez, Haurren Eskubideen gaineko Nazioarteko Hitzarmenaren 8. artikulua aurreikusten du haur guztiek dutela beren nortasuna begiratzeko eskubidea. Horrek berekin dakar haur guztiek izena, herritartasuna eta beren jatorria ezagutzeko eskubidea izateaz gainera, hitzarmen hori izenpetu zuten estatuetako agintari guztiak behartzea beren esku-ra dauden baliabide guztiak erabiltzera haurrak nortasun hori gal ez dezan. Adingabe atzerritarren kasuan, eskubide hori honela zehazten da: Espainiako agintariek adingabe atzerritarra bere izenaren, adinaren, herritartasunaren, jatorriaren, etorkiaren, kulturaren eta bere nortasuna osatzen duten beste ezaugarri batzuen bidez onartu beharra dute.

Gainera, hitzarmen horretako xedapenen arabera, gizarte zerbitzuko hainbat eskubide ere badagozkio haurrari. Eskubide horiek helduei

dagokienez mugaren bat izan badezakete ere, hurrek erabili behar dituztenean eskubide horiek ez dute mugarik. Honenbestez, osasun laguntzarako, heziketarako eta gizarte zerbitzuen sistemara heltzeko eskubidea atzerritarrei eta nazionalei baldintza berberetan dagokie, Espainian legez edo legez kanpo dauden gorabehera. Horixe xedatzen dute, bestalde, Espainian atzerritarrek dituzten eskubideen eta askatasunen gaineko 4/2000 Lege Organikoaren (urtarrilaren 11koa) 9.1. artikulua –heziketarako eskubideari buruzkoa– eta 12.3. artikulua –osasun laguntzari buruzkoa–.

Europako Erkidegoari dagokionez, lehenago esan dugu Batasuneko Kontseiluko Erabakia existitzen dela, 1997ko ekainaren 26koa. Beste herrialde batzuetatik heldu diren bidaiderik gabeko adingabeei buruzkoa da; hain zuzen ere, erreferentzia egiten die Europako Batasunetik kanpo dauden estatuetako nazionalei, hemezortzi urtez azpikoak izanik, beren arduradun den heldu baten laguntzarik gabe Batasuneko kide den herrialdeetako batean sartzen direnei.

Erabakian ageri diren bermeen artean, iristen denean adingabearen nortasuna lehenbailehen zehaztu beharri dagokiona dago. Eta lagunduta ez dagoela ere lehenbailehen adierazi behar da. Nortasunaren eta adingabearen egoeraren gaineko datuak lortzeko hainbat bide zehazten ditu, bereziki, ahalik eta lasterrena eta bere adinerako egokiak diren baldintzetan egin beharko litzatekeen elkarrizketa bat.

Beste alde batetik, erabaki horrek xedatzen du adingabe batek ez duenean Batasuneko kide den estatu batean egonaldia luzatzeko baimenik, estatu horrek bakarrik itzuli ahal izango duela adingabea jatorrizko herrialdera edo onartzeko prest dagoen beste batera. Hala ere, egiaztatu behar du iristen den mementotik bertatik, harrera egingo diotela eta, modu egokian eta bere adinaren eta autonomia mailaren premien arabera, bai gurasoen edo bere ardura hartuko duten beste heldu batzuen, bai konponbide iraunkor egokia lortu bitartean jatorrizko herrialdeko edo beste herrialderen bateko gobernu instantzien, gomendio egongo dela.

Bertako esparruari dagokionez, azaleko erreferentzia egin behar zaio adingabearen legezko babesari buruzko 1/1996 Lege Organikoak, urtarrilaren 15ekoak, ezartzen duenari. Bestela izan ezin litekeenez, lege horrek adingabe guztiak parekatzen ditu eskubideen gaian. Horixe ondorioztatzen da 1. artikuluan ezarrita dagoenetik. Izan ere, legea aplikatzeko esparrua zehazten du hor: “Espainiako lurraldean dauden hemezortzi urtez azpiko adingabeak.” Bestela esanda, babesa adin-

gabe guztiei aplikatu ahal zaie, herritartasuna dela kausa bereizi gabe.

Espanian atzerritarrek dituzten eskubideen eta askatasunen eta horien gizarteratzearen gaineko 4/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 11koak, atzerritarren egoerei buruzko kapituluan, "Adingabeen bizilekua" izeneko agindu bat ematen du (35. artikulua). Agindu horren arabera, Estatuko Segurtasun Indarrek dokumenturik gabeko atzerritar bat aurkitzen badute eta ziurtasunez ezin bada jakin adingabea dela, adingabeen babesaren dagokien zerbitzuek behar duen arreta emango diote berehala, adingabearen legezko babeserako legedian ezarrita dagoenarekin bat. Gertakaria Ministerio Publikoari jakinaraziko dio eta horrek aginduko du adina zehaztea. Hain zuzen ere, dagokien osasun erakundeek lagundu beharko dute, eta, lehentasunez, beharrezkoak diren azterketak egingo dizkionte. Adina zehazten denean, atzerritarra adingabea bada, adingabeen babesaren gaineko eskumenak dituzten zerbitzuen esku jarriko du Ministerio Publikoak.

Adingabearen familia berrelkartzearen printzipioarekin bat eta adingabeen babeserako zerbitzuek txostena egin ondotik, Estatuaren Administrazioak dagokiona erabakiko du jatorrizko herrialdera edo beren senideak dauden herrialdera itzultzearen gainean, edo, bere kasuan, Espainian egotearen gainean.

Dena dela, administrazio publiko baten babespean dauden adingabeak egotea legezkoztat joko da eragin guztietarako. Babesa ematen dion erakundearen eskariz eta behin egiaztatuta gelditu denean ezin dela itzuli jatorrizko herrialdera bere familiarekin, bizileku baimena emango zaio, eta horren eraginek atzerantz joko dute, adingabeak babesteko zerbitzuen esku jarri zen unera.

2393/2004 Errege Dekretuaren, abenduaren 30ekoaren, 92. artikuluan ("Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak") garatuta dago legezko agindu hori. Hain zuzen ere, errege dekretu horrek onartzen du Espainian atzerritarrek dituzten eskubideen eta askatasunen eta horien gizarteratzearen gaineko 4/2000 Lege Organikoko araudia, urtarrilaren 11koa. Errege dekretu horren 111. artikulua "Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren erregistroa" izeneko du sortua. Erregistro hori kudeatzea Estatuaren Administrazioari dagokio, eta bertan honako datu hauek agertuko dira: adingabea identifikatzeko datuak, adina zehazteko azterketa barne, zein babes zentroan dagoen eta zein erakunde publikoren babespean dagoen. Beste alde batetik, adingabeen babesaren gaian eskumenak dituzten zerbitzuek nahitaez eman behar diote informazioa erregistro horri.

Azkenik, aplikatu beharreko legedi esparrua osatzeko, aipatu behar da, Nafarroan, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babeserako 15/2005 Foru Legeak, abenduaren 5ekoak, ezartzen duena hartu behar dela kontuan. Lege horren xedea da Nafarroako Foru Komunitatean adingabeen babes osoa ziurtatzea (1. artikulua), eta bertan aurreikusten diren neurriek Nafarroako Foru Komunitatean bizilekua duten adingabeei edo aldi baterako lurralde horretan dauden adingabeei eragingo diete.

Hau da, foru lege horretan diseinatutako babes sistema, nazioarteko eta estatuko araudiarekin bat etorritik, adingabearen herritartasuna edo administrazio egoera dela medio inolako bereizkeriarik gabe aplikatuko da.

IV. ERREALITATE HORREN HEDADURA FORU KOMUNITATEAN.

Lehenik eta behin, adierazi behar dugu, eskura ditugun datuen arabera, bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren presentziak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean gorabehera ia urria duela. Izan ere, Estatuko lurralde osoan ugari dira bai egoera horretan dauden adingabeak bai horiei eskainitako zentroak eta baliabideak ere. Gure kasuan, ordea, ezin liteke hori esan.

Hain zuzen ere, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak bildutako eta Adingabeen Herri-salutaritzak berretsitako datuen arabera, 2008ko ekainean 17 adingabe ziren egoera horretan. Izan ere, honako modu honetan zeuden berezita:

a) Alde batetik, bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrentzako baliabide espezifiko bat existitzen da (MENA programa izeneko). 2007. urtean sortu zuten, eta Kanarietara, modu berezian eta ezohikoan, iristen ziren adingabeak banatzeko Estatuaren Administrazio Nagusiak abian jarri zuen ekimen batean du oinarria. Esparru horretan, eta Estatuko eta Foru Komunitateko administrazioen arteko elkarlan hitzarmen bat sinatuta, azken horretan bidaiderik gabeko 10 adingabe hartu ziren.

10 leku horiek kudeatzea –egoitzan hartzeko erregimenean- Nuevo Futuro izeneko elkarteari egokitu zitzaion.

2007an iritsi zirenetik, 10 adingabe horiek Zabalen bizi dira (Deierri), elkarte horrek kudeatzen duen zentro batean. 10 adingabe horietatik 7 Senegalgoak dira, 2, Gambiakoak, eta 1, Malikoa.

b) Beste alde batetik, adingabeak babesteko sistemaren baliabide "arruntan" arabera hartuta

dauden 7 adingabe daude (hau da, babesari behar duten beste adingabe batzuekin batera daude). 7 adingabe horietatik 6 Marokokoak dira eta Iruñean dauden babespeko zenbait etxebizitzatan bizi dira. Zazpigarrena kongoarra da eta Atarrabian dagoen babespeko etxebizitza batean bizi da.

Ikus daitekeen moduan, gure lurraldean dauden bidaiderek gabeko adingabe atzerritarren kopurua ez da handia. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatzen badugu, azken urteetan babes zerbitzuetatik igaro diren bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrek 3.000 baino gehiago dira. Hain zuzen ere, 2007. urtean 600 adingabe gehiago hartu dituzte. Horixe adierazi zuen EAEko Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zion 2007ko txostenean.

Honenbestez, esan dezakegu, gure komunitatean errealitate honek duen hedadura "urria" dela.

Txosten honetan, nagusiki, aipatutako baliabideetako lehenaren funtzionamendua aztertzen jarriko dugu arreta, bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrei berariaz eskainia dagoen baliabidea baita. Hala eta guztiz ere, aipatutako gainerako kasuei ere egingo diegu erreferentzia, nahiz eta azalekoa izango den.

V. KANARIETATIK HELDU DIREN BIDAIDERIK GABEKO ADINGABE ATZERRITARREN PROGRAMA.

1. AURREKARIAK.

2006ko irailaren 8an, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioako Haurrentzako Zuzendariordetza Nagusiak txosten bat egin zuen. Txosten horretan Kanarietara iristen ari ziren bidaiderek gabeko adingabe atzerritarren arloan esku hartzeko jarraibideak azaltzen zituen. Adingabeen babesaren arloan eskumen arlo nagusia azaldu ondotik, txosten horretan, autonomia erkidego horretara heltzen ari ziren adingabeekin jarduketak bereziak egiteko aukerari heltzen zitzaion eta, orain aztertzen ari garenari dagokionez, beste autonomia erkidego batzuetan banatzearen alde egiten zen.

Kanarietan gertatutako egoera horren ezohikotasunari egiten zitzaion erreferentzia, adingabeak hartzeko giza baliabideak eta materialak gainezka egiten ari baitziren, eta, honenbestez, presako irtenbideak hartu behar ziren babes maila egokiari eutsi ahal izateko.

Testuinguru horretan, autonomia erkidegoen arteko elkartasun eta koordinazio printzipioa bultzatzea zedin eskatzen zen, besteak beste, une horietan gertatzen ari zen egoera berezi horretan, adingabeak autonomia erkidegoen eta hirien artean

zuzen banatu zitezkeen. Hain zuzen ere, horren helburua zen adingabe horiek hartzearen zama ez zekiela neurritik kanpoko moduan egokitu zenbait autonomia erkidegori; jatorrizko herrialdeetatik gertu egoteagatik edo horietara heltzea errazagoa izateagatik, migrazio handiagoa duten erkidegoei, hain zuzen.

Postulatu gisa proposatzen zen autonomia erkidegoekin itun bat izenpetzea, Kanarietara heldutako bidaiderek gabeko adingabe atzerritarren kopuru bat (zehaztuko zen kopurua) lekuz aldatzeko. Erkidego hartzaileak bere gain hartuko zituen babespeko betebeharrak, eta Estatuaren Administrazioak, berriz, babes horren ondoriozko gastuak ordainduko zituen, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren bidez.

Horrek berekin ekarriko luke Kanarietara bidaiari izateari utziko lioketela (eta horren ondorioz bertan behera geldituko litzateke babesgabatasun edo/eta zaintza adierazpena) eta helburuzko autonomia erkidegoa izango litzatekeela une horretatik aurrera babes horren eskumenak izango lituzkeena. Eta babes horren baldintzak erkidego horretan babesgabatasun egoeran egongo liratekeen gainerakoek izango lituzkeen berberak izango lirateke.

Esan den moduan, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak bere gain hartuko luke babes horren gastuak finantzatzea. Helburuzko erkidego horretan lankidetzaren hitzarmena sinatuko luke, eta, beraz, azken horrek ez luke ezer ordaindu behar. Horrez gain, bi autonomia erkidego horietan, Ministerio Publikoak operazio osoaren berri izango luke, legeek erakunde horri ematen dizkieten eskumenak direla eta; hain zuzen ere, adingabearen babesaren, legezkotasuna eta babeserako emandako neurrien egokitasuna zaintzearen, eta horiek aplikatzen direla jakiteko jarraipenaren gaineko eskumenak.

Aurreko txostenarekin bat, Estatuako Administrazio Nagusiak eta Kanarietako Gobernuak elkarrekin proposamen bat egin zuten, Kanarietatik penintsulara eramandako bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrek lekualdatzeko eta hartzeko. Programaren funtsezko alderdiak zehaztu zituzten, besteak beste, lekualdatzeko protokoloa eta hori egin aurretik egin beharreko jarduketak (adingabe bakoitzaren berri laburra eta bere datuak bidaiderek gabeko adingabe atzerritarren Polizia Erregistroan sartzea; adingabearen adina zehazteko azterketak egitea; adingabearen gizarte txostena egitea, bera eta bere sendia identifikatzeko bidea emango duten datuak hartuko dituen txostena, hain zuzen; adingabearen babesari eta zaintzari buruzko administrazio dokumentuak).

Kanarietatik lekualdatutako bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak lekualdatzeko eta hartzeko programa berezia ere egin zuen Estatuaren Administrazioak. Hain zuzen ere, programa justifikatzen zuen (elkartasun printzipioa), definitu egiten zuen, helburuak azaltzen zituen eta jarraitu beharreko jarduketa protokoloa zehazten zuen (lekualdatu aurreko jarduketak, lekualdaketak, helburuzko erkidegora iristea, koordinazioa eta jarraipena). Horiez gain, programan finantzaketa aurreikusten zuen. Estatuak bere gain hartuko luke, eta adingabe eta egun bakoitzeko 80 eurokoa izango litzateke.

Ordurako, 2005eko urrian, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak eta Kirol, Gazteria eta Gizarte Ongizaterako Departamentuak lankidetzaren hitzarmen bat izenpetua zuten, immigranteak hartzeko eta gizarteratzeko jarduketak gauzatzeko. Hitzarmen horren esparruan -2007ko ekitaldirako luzatu zen- sartu behar da "Kanarietatik lekualdatutako bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak hartzeko programa berezia".

Zehatzago esanda, hitzarmenari atxikita doan Ekintza Planak programa batzuk hartzen ditu, horietako bat orain interesatzen zaiguna, hain zuzen ere, Kanarietatik lekualdatutako bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrentzako laguntza langai duena. Hartara, gure komunitatera etorriko zirenak 10 adingabe izango zirela erabaki zen, 16 urtetik gorakoak eta bizileku baimena eskuratzeko aukera izango zutenak.

Lehen batean, programa 2007ko maiatzaren 1a eta abenduaren 31 bitartekoa izango zela aurreikusitako zuten, baina 2008. urterako luzatu da.

2. PROGRAMAREN DISEINUA.

Estatuko eta Foru Komunitateko administrazioen arteko hitzarmenari atxikirik doan Ekintza Planean (lehenago aipatu den horretan) programaren oinarritzeko zenbait elementu ezartzen ziren. Hona hemen elementu horiek:

– Jardunbidea: Kanarietatik lekualdatutako bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak lekualdatzeko eta hartzeko programa berezia.

– Deskribapena: bidaidetik gabeko adingabeak laguntzea, bertan hartuta.

– Lurralde banaketa: Nafarroa.

– Norentzat den: bidaidetik gabeko 10 adingaberentzat. 16 urtetik gorakoak izan behar dute eta Nafarroan bizileku baimena eskuratzeko aukera izango dutenak.

– Kudeaketa egiteko bitartekoak: lankidetzaren hitzarmena eta laguntza teknikorako kontratua.

– Ekintzaren aurrekontu osoa: 196.000 euro (2007. urtea), osorik Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak finantzatua. Honenbestez, Foru Komunitateak ez du ordaindu beharrik izango.

– Organo arduraduna: Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Familia Zuzendaritza Nagusia.

– Gauzatzeko duen erakundea: kontratua esleitzen zaion gizarte ekimeneko erakundea.

– Egiteko data eta iraupena: 2007ko maiatzaren 1a eta abenduaren 31 bitartekoa (dena dela, lehenago esan den moduan, 2008ko abenduaren 31 arte luzatu da).

Aurrekoa kontuan izanda, Familia zuzendari nagusiak apirilaren 3an emandako 386/2007 erabakiaren bidez, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak egoitzan hartzeko 10 leku kudeatzeko kontratatze txostena onartu zen eta enkantean eskaintzeko prozedura hastea erabaki zen. Horren izapideak egin ondotik, kontratua, laguntza teknikoa ematekoa, Nuevo Futuro elkarteari esleitu zitzaion. Hain zuzen ere, 2007ko maiatzaren 14an formalizatu zen kontratu hori.

Kontratuaren edukitik eta horri dagozkion dokumentuetatik honako hauek nabarmendu behar dira:

– Kontratatzearen helburua da 10 lekuko egoitza bat kudeatzea, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak hartzeko egoitza. Ardura edo babes txostena Nafarroako Foru Komunitateak hartuko du bere gain. Hau da, babesgabetasun adierazpena egin ondotik, adingabe horien ardura edo babesa Foru Administrazioak hartuko du bere gain, eta zaintza erakunde kudeatzailearen esku geldituko da.

– Adingabe horiek Nafarroan modu egokian gizarteratzen eta beren nortasuna egoki garatzen laguntzeko asmoz, adingabe horiek Lantegi Eskolako programa batean parte hartuko dute (bitariko programa da, prestakuntza eta lana uztartzen dituena).

– Programaren hartzailak bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak dira, 16 eta 18 urte artekoak. Kanarietatik heldu dira eta Immigrazioarako eta Emigrazioarako Estatuko Idazkaritzak bideratu ditu, beren premiekin bat etorriko den esku-hartze plan bat gauzatzeko helburuarekin.

– Zerbitzua kudeatzeko duen erakundeak egin behar dituen artean honako hauek daude: zentzuzko urte osoan irekitzea; adingabeei arreta osoa

ematea, beren gorputz, emozio eta lan premiak aintzat hartuta, beren nortasunaren garapen harmoniaduna lortzeko eta gizarteratzea errazteko; bere premien arabera heziketa edo/eta lan neurriak hartzeko helburuarekin, gaztearen ezaugarriei behatzea eta horiek aztertzea; egoteko, bizitzeko, jan-edateko, gizarte, osasun eta legezko arreta izateko, garbiketa zerbitzuak izateko... beharrezkoa den arreta osoa ematea.

– Baliabide materialei dagokienez, ezarrita dago zentroak toki bereizi batean egon behar duela, bizilagun elkarte batetik kanpo.

Toki nahikoa eta zabala izango da 10 adingabeak eta horien arduradunak hartu ahal izateko. Gutxienez, 4 logela bikoitz eta 2 banakako, 3 bainugela, sukaldea, 2 egongela edo erabilera anizterako gela eta heziketarako gela bat izan beharko ditu. Gainera, administrazio eginkizunetarako, psikologia ebaluazioetarako eta bileretarako beharrezkoak diren lekuak izan beharko ditu.

Azkenik, eguneroko bizimodurako egokiak diren altzariak, tresnak, gailuak eta puskak izan beharko dituela zehazten da, adingabeen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko.

– Giza baliabideei dagokienez, aurreikusten denaren arabera, adingabe horiek arreta osoa izan dezaten beharrezkoa den profesional kopurua izango du. Kontratua gauzatzeko egokia den prestakuntza eta ezaugarriak izan beharko dituzte profesional horiek.

Horretarako, hain zuzen, honako figura hauek egongo dira, gutxienez:

a) Baliabidearen koordinatzailea. Zuzenbide, Psikologia edo Pedagogia tituluduna izango da edo, gainerakoan, gizarte arloko diplomaduna.

b) Hezitzaileak/Zaintzaileak. Psikologia edo Pedagogia tituludunak izango dira edo, gainerakoan, gizarte arloko diplomadunak.

– Diruari dagokionez, ezarrita dago adingabeei arreta osoa emateko aurreikusita dagoen kostua 80 eurokoa dela adingabe eta egun bakoitzeko.

– Halaber, zentroan sartzean eramango diren dokumentuak zein izango diren ere aurreikusten da: babes erabakia, adingabea eta bere familiaren kokalekua identifikatzeko dauden datuak, egindako hezur azterketaren arabera, adina zehazteko dokumentua, zentro horretan sartzea arrazoitzen duten gertakarien txostena eta egin daitezkeen beste gizarte, psikologia eta pedagogia txosten batzuk.

– Zentroan egoteko epea adingabe bakoitzaren ezaugarriek eta nondik norakoek erabakiko dutela ezartzen da.

– Amaitzeko, Administrazioaren (babesa gauzatu du) eta zentroaren ardura duten langileen (egoitzan hartuko dituzte) arteko koordinazioa aurreikusten da. Izan ere, hamabost egunean behin bilera egitea aurreikusten da dagokion informazioaren berri emateko elkarri. Aurretik ezarrita dauden bilera formal horiek alde batera utzirik, telefono bidezko edo zuzeneko harremana izango da behar denean, adingabeen jarraipenean sortzen diren arazo jakinak konpontzeko.

3. ERAKUNDE HONEK IKERTZEKO EGINDAKO JARDUKETAK.

A) FAMILIA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGOITZARA JOATEA (HAURRENTZAKO ETA NERABEENTZAKO SUSTAPEN, LAGUNTZA ETA BABES ZERBITZUA). ELKARRIZKETAK EGITEA, DOKUMENTUAK ESKATZEA ETA TXOSTENAK AZTERTZEA.

Hasteko, erakunde honek Familia Zuzendaritza Nagusiaren laguntza eskatu zuen. Egungo egoeraren berri izateko elkarrizketa egin genuen, txosten hau egin ahal izateko beharrezkoak diren dokumentu askotarikoak ekartzeko eskatu zen, eta gure lurraldera iritsitako 10 adingabe horiek direla eta abiarazitako txostenak pertsonalki ikusi ahal izan genituen. Lehenago esan den moduan, 10 adingabe horietatik 7 Senegalgoak dira, 2, Gambiakoak, eta 1, Malikoa.

Adingabeetako bakoitzaren txosten pertsonalean, lehen batean, Kanarietatik igorritako informazio eta dokumentu ugari zegoela ikusi genuen (identifikazio pertsonala, Gizarte Segurantzako zenbakia ematea, familiari dagokion alderdiak, adina zehazteko azterketak, osasun, gizarte eta hezkuntza txostenak...). Txosten pertsonalean sartutako dokumentuak jasotzea, lehenago ikusi dugunez, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarekin batera izenpetutako hitzarmenean aurreikusia zegoen.

Nafarroako Foru Komunitateak egindako dokumentuei dagokienez, adierazi behar dugu, kasu guztietan, babesgabetasuna adierazteko betebeharra bete duela, babesa onartu duela eta bat etorrarazi dituela horren data eta adingabea emateko aktan datorren data.

Ontzat jotzeko moduko alderdizat hartu behar da, honenbestez, Familia Zuzendaritza Nagusiak agudoki bete dituela babeserako dituen betebeharrak, gure lurraldera heldu eta berehala adingabearen babesgabetasuna adierazita eta administrazio babesa bere gain hartuta.

Alde horretatik nabarmendu behar da 2008. urte honetan Gorte Nagusiek izendatutako ararte-koak Andaluziako Juntako Berdintasunerako eta Gizarte Ongizaterako Kontseilaritzari honako hau gomendatu ziola: "Eman daitezela egokiak diren aginduak Administrazio horren ardurapean dauden bidaiderek gabeko adingabe atzerritarren babesgabatasuna adieraztea hitzartzeko eta ardura hori bere gain izan dezatela beste agintari bati eskualdatzen ez zaion bitartean, adingabea familiarekin elkartzen den bitartean edo interesduna adinez nagusi den bitartean". Gomendio horretan, babesgabatasun adierazpenarekin batera, Administrazio Publikoak babesa bere gain hartzeko eskatzen zen. Hortaz, poztu egiten gaitu gure komunitatean gomendio horren edukia hori egin aurretik gauzatzela ikustek.

Nuevo Futuro elkarteak Zabalgo zentroan hartutako 10 adingabeen egoeraren eta bilakaeraren ondorengo jarraipenari dagokionez, ikusi genuen Familia Zuzendaritza Nagusiak 2008ko urtarrilean txosten bat egin zuela Gizarte Gaietarako Ministerioak eskatu ziolako.

Txostenaren hasieran adingabeen identifikazio datuak, jatorrizko herrialdea, adina eta hartu dituen erakundea ageri dira, eta honako lau zati haue-
tan dago egituratuta:

- Heziketa zertan den. Hizkuntza jakitea edo gabeziak izatea bai idatziz eta bai ahoz ere, Kanarietan jasotako prestakuntza eta egun Lantegi Eskolan eskolatuta egotea aztertzen dira.

- Gizarteratzeko prozesua zertan den. Adingabea inguruan egokitzeko prozesua (hezitzaileak, herritarrak, gainerako adingabeak... kontuan hartuta), egiten dituen etxeko lanak, kirol edo aisialdi jarduerak... aztertzen dira.

- Jatorrizko herrialdean edo Espainian familia-
rekin berrelkartzeko aukera zertan den. Senitarte-
korik ba ote den edo horiekin harremanik ba ote
den, eta horietakoren bat Espainian ote dagoen
adierazten da.

- Alderdi interesgarriak. Zenbait alderdi azter-
tzen dira, besteak beste, osasun arazorik ba ote
den edo gorabeherarik izan ote den.

Gai honen gaineko ardura dutenekin egindako elkarrizketetan azaldu ziguten, egun, konpondu gabe duten arazo nagusia egoitza eta lan baime-
nak berritzeari buruzkoa dela (izan ere, laster, 2008ko ekainean, iraungiko dira, gauzaten ari den programa amaitu baino lehenago). Gai hone-
tako eskumenak dituzten Estatuko Administrazio-
ko agintariekin harremanetan daudela jakinarazi zigu-
ten, izapideak bideratzea arintzeko asmoz. Izan

ere, ezinbestekotzat jotzen dugu hori, gauzaten ari diren programak jarraitzea bermatu ahal izateko.

Familia Zuzendaritza Nagusiak txostenak kude-
atzen egin duen lana zuzena dela iruditzen zaigu,
nahiz eta pentsatzen dugun Nafarroara iritsi zire-
netik adingabeei egindako jarraipenean bildutako
informazioa hobetu daitekeela eta osoagoa izan
daitekeela. Alde horretatik, administrazio organo
hori bultzatu nahi dugu, adingabeen babesa berari
dagokionez, ahal duen neurrian, jarraipen lan hori
indartzera.

Hala eta guztiz ere, jakitun gara, adingabeen
gaia dela eta lehenago egin genuen txosten bere-
zian azaldu genuen moduan, gai horren eskume-
nak dituzten organoek lan zama gehiegizkoa dute-
la, dituzten giza baliabideak kontuan hartuta. Eta
arrazoi horrek azaldu ahal du aztertu diren txosten-
etan ikusi den hutsune arina.

B) BIDAIDEREK GABEKO ADINGABE ATZERRITARRAK
HARTZEKO ZABAL HERRIAN DAGOEN ZENTRORA BISITA
EGITEA.

Lehenago esan den moduan, Foru Administra-
zioaren babespean dauden adingabe hauek har-
tzea Nuevo Futuro elkarteari dagokio, hori baita
egoitzan hartzeko 10 plaza horiek kudeatzeko
kontratu publikoaren esleipenduna.

Haurren eta gazteen arloko zerbitzuak eta zen-
troak sailkatzeko dagoen moduaren arabera, bali-
abide hori "Etxebizitza funtzional" moduan hartu
behar da (sailkapen hori 209/1991 Errege Dekre-
tuan, maiatzaren 23koan, ageri da. Errege dekretu
horrek gizarte zerbitzuen gaien baimenak, isunak
eta zigorrak arautzeko 9/1990 Foru Legea, azaroa-
ren 13koa, garatzen du).

Zerbitzua arautzen duen araudiak honako
hauek ezartzen ditu:

- "Definizioa: familia moduluan oinarritutako
bizikidetzaren unitate bat hartzen duen etxebizitza,
familiarik gabeko adingabeei, edo kaltegarritzat
jotako familia dutenei, afektibitate, psikologia, adi-
men eta gizarte garapen egokirako beharrezkoak
diren giza baliabideak eta baliabide materialak
bermatzen dizkiena.

- Erabiltzaileak: a) adingabeak, beren familiak
beren gaineko ardura hartu ezin dutenak; b) adin-
gabeak, babesgabatasun egoeran daudenak.

- Emandako zerbitzuak: a) arreta osoa; b) bakoitzarentzako programatutako jarduerak, helbu-
ruak, metodoak eta erabili beharreko teknikak adi-
erazten dituztenak; eta c) adingabearen bilakaera-
ren jarraipena.

– Langileak: a) eguneko txandetan, arreta zuzena emateko langileen artean, beti egongo da hezitzaile bat hamar adingabeko; b) arreta zuzena emateko langileen gutxieneko proportzioa erabiltzaile bakoitzeko 0,20 izango da; c) zerbitzua ematen duen erakundearen arduradunen gain egongo da zuzentzea, gainbegiratzea eta jarraipena egitea, eta horiek berek honako espezialitate hauetako zerbitzu profesionalak -berenak, itunduak edo publikoak- izan beharko dituzte: Psikologia, Pedagogia eta Gizarte Lana.

– Baldintza espezifikoak: logeletan, gehienez ere, hiru ohe izango dira.”

Lehenbizi, zentroan bizi diren adingabeen dokumentuei buruzko alderdiak eta alderdi pertsonalak egiaztatu genituen. Adierazi da, guraso edo senitarteko bidaiderik ez izatean, zegokion babesgabetasuna adierazi zela denen kasuan, eta horien babesa Foru Komunitateko Administrazioari egokitu zitzaioela (Familia Zuzendaritza Nagusiaren bidez). Hartzea, berriz, Nuevo Futuro elkarteari dagokio, hori baita zentroaren kudeatzailea.

Adingabe guztiek dute beren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa (Atzeritarrak Identifikatzeko Zenbakia), adina zehazteko egindako hezur azterketak eta aurrekariak eta alderdi pertsonalak biltzen dituzten txostenak (Kanarietan eginak eta zentroan daudenetik hartu dituen erakundeak osatuak). Era berean, orain bizi diren herrian errolatuta daude denak, hau da, Zabalen, Deierri, errolatuta daude.

Espanian duten administrazio egoerari dagokionez, behin-behineko bizileku baimena dute, 2008ko ekaina bitartekoa. Baimen hori berritzeko izapideak bideratzen ari dira une honetan (Familia Zuzendaritza Nagusia eta Barne Ministerioa ari dira izapide horiek bideratzen).

Beren senitartekoak identifikatuta ote dauden eta horietakoren bat Espainian ote dagoen ere jakin nahi izan genuen. Alde horretatik, nahiz eta adingabe guztiek duten telefono bidezko harremana senitartekoekin, ohiko harremana, bakarrik hiruk dute senitartekoren bat lurraldeko beste tokiren batean.

Zentroaren ezaugarriak direla eta, hasteko, esan behar da herriko ohiko etxea dela, handia, baserri antzekoa, tradizioko estiloa duena. Lau logela ireki ditu (bi bikoitzak dira, eta beste biak, hirukoitzak), itxi litezkeen lau bainugela, bi egongela, sukaldea eta jolas jarduerak egiteko egokia den gela bat (ordenagailuak, mahai futbola...) ditu. Ikasteko leku egokiak daude (edo logeletan, edo egongeletan). Azkenik, adingabeekin lan egiten duten langileak biltzeko gela bat dago.

Horrelako landetxetan ohikoak diren altzariak ditu, eta zurgintza ikasten ari diren adingabeek berek zentroa altzariz janzten laguntzen dute, armairuak, apalategiak... eginda.

Zerbitzu hau ematen ari diren langileak direla eta, honako profesional hauek ari dira lanean:

– Koordinatzailea. Gizarte Heziketako diploma duen pertsona bat. Zentroan 09:00 eta 17:00 bitartean egoten da.

– Hezitzaileak/zaintzaileak. Gizarte Heziketako diploma duten lau hezitzaile. Egunez beti bi egoten dira zentroan, eta gauez, bat.

– Laguntzeko lanak. Bi heziketa-laguntzaile (horiek ere diplomadunak) eta adingabeak Lantegi Eskolara joaten diren egunetan otorduak prestatzen dituen sukaldaria ere lanean aritzen dira zentroan.

Honenbestez, ondorioztatu ahal da arlo honetan, aplikazio araudian eta Foru Komunitateko Administrazioarekin izenpetutako laguntza kontratua ezarrita dauden ratioak errespetatu eta gainditu egiten direla.

Era berean, adierazi behar da adingabeek berek egiten dituztela garbiketa lanak eta asteburuan otorduak prestatzen dituztela. Prestakuntzaren ikuspuntutik, egokiak iruditzen zaizkigu alderdi horiek.

Programatutako jarduera osagarriak egiten dituzte, gainera. Direla kirola egitekoak (inguru horretako areto futboleko txapelketan parte hartzen dute), direla hizkuntza hobetzekoak (gaztelania ikasteko eskolak hartzen dituzte), direla aisialdikoak (asteburuetan ateraldiak egiten dituzte).

Azkenik, gehitu behar da zentroan beren araudia dutela, eta hor ezarrita dituztela funtzionamendurako eta bizikidetzarako oinarriko arauak.

Heziketa eta lan alderdiei dagokienez, nabarmendu behar da, lehenbizi, adingabe guztiek ulertzen dutela gaztelania, batzuek hizkuntza egoki erabiltzeko arazoak badituzte ere. Arazo edo gabezia horiek konpontzeko gaztelania ikasteko eskola osagarriak hartzen dituzte eta etxean hitz egiteko hizkuntza gaztelania izan dadila bultzatzen da.

10 adingabeek ikasketak eta lan jarduera Lizarran eta Tafallan dauden lantegi eskoletan egiten dituzte. Bitariko programak dira, prestakuntza eta lana uztartzen dituztenak. Zurgintza, iturgintza eta soldadura ari dira ikasten. Denek dute lan kontratua eta Gizarte Segurantzaren izena emanda daude. Ikasleak garraiatzea elkarrearen kontu egiten da, eta Euskadiko Kutxak emandako diru laguntza baten bidez erositako furgoneta batean egiten dute.

Osasun arloan, bakoitzak bere osasun txartela du eta dagokien lehen mailako arretako zentroko kide dira.

Erlijioari dagokionez, denak musulmanak dira. Ideologia eta erlijio askatasunerako duten eskubidea errespetatzen da: ohikoa dutenean egiten dute otoitz eta Ramadanean beren elikadura egokitu egiten da.

Azkenik, zentroak beste instantzia batzuekin dituen harremanen gainean galdetu genuen. Jakinarazi zigutenez, harremanak dituzte Familia Zuzendaritza Nagusiarekin. Nahiz eta harreman horiek maizak eta arinak diren, ez dira modu sistematikoan egiten edo aurretik zehaztuta dagoen maiztasun batekin egiten.

Adingabeen Herri-salataritzari ez diote gertakiririk jakinarazi behar izan, eta ez dirudi beharrezkoa denik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek esku hartu behar izatea.

Elkarteko langileek lantegi eskoletako tutoreekin bilerak egiten dituzte astero, adingabeen lanaren eta prestakuntzaren jarraipena egiteko asmoz.

c) BIZIKIDETZA HARREMANAK.

Adingabe atzerritarren arteko bizikidetza oso ona da, edozein taldetan sortu ohi diren liskarrak edo liskar arinak izaten badituzte ere.

Lan egin eta beren familiei dirua bidaltzeko asmoa zutela etorri ziren adingabeak Espainiara. Oso argi dute zein diren beren helburua edo aukerak, eta horrek elkarrekin bizitzea errazten du. Lehen batean, zuzenean eta beren kabuz lan merkatura sartzeko aukerarik ez izateak kasuren batean frustrazioa eragin bazuen ere, egun adingabeek beren egoera onartzen dute eta, beraz, ez dute arazo berezirik sortzen.

Gainerako herritarrekiko harremani dagokionez, egoki jo genuen Zabal kontzejuko lehendakariaren iritzia jakitea. Horrek adierazi zigun adingabeek ez dutela arazorik sortu eta herriko bizimoduan modu naturalean integratu direla, herriko jardueretan normal parte hartu dutela: zaindariaren omenezko jaietan, kirol txapelketetan...

d) KEZKA BEREZIA SORTZEN DUTEN ALDERDI NABAR-MENGARRIAK.

Alde batetik, agerian ipini digute adingabeek 18 urte betetzen dituzten unean programa jarraitzeko aukera izateak edo ez izateak sortzen duen kezka. Behin adinez nagusi direla, adingabearen babesgabetasun egoera bertan behera geldituko da eta, teoriarik, pertsona horiek gai izango dira babes sistematik libre, bere kasa, bizitzeko. Dena den, prak-

tikan, litekeena da errealitatea bat ez etortzea teoria horrekin. Alde horretatik, badirudi komenigarria dela, gutxienez, adingabe horiek lantegi eskoletako prestakuntza egiten jarraitzea programa guztiz amaitu arte.

Era berean, adingabeak babesteko Nafarroako administrazio publikoek egiten duten jarduna aztertu zuenean erakunde honek eta txosten hartan adierazi zuen bezala, komenigarria litzateke emantzipazio programak edo helduen bizimodura igarotzeko programak proposatzea. Hartara, murriztu egingo litzateke babes sistema baten pean egotetik adinez nagusi egin eta berehala helduen bizimoduari dagozkion arazoei bere kabuz aurre egin behar dien egoerara igarotzea bat-batean. Aintzat hartzen badugu emantzipazio programa horiek komenigarriak direla babes publikoaren mende dagoen edozein adingaberen kasuan, are komenigarriagoak dira bidaidetik gabeko adingabe atzerritarren kasuan.

Beste alde batetik, eta alderdi hau lehenago adierazi da, Espainian duten administrazio egoeraren gaineko alderdiak dira kezkarriak. Esan den moduan, adingabe horiek aldi baterako baimenak dituzte, laster iraungi egingo diren baimenak. Horrekin lotuta, komenigarria litzateke baimen horiek berritzeko izapideak arintzea eta, hartara, pertsona horiek gure lurraldean bizitzen eta lan egiten jarraitu nahi badute inolako oztoporik ez izatea laguntzeko.

Azkenik, finantzen alderdiak sortzen du ziurtasunik eza. Batetik, egun dagoen finantzaketa konpromisoak 2008ko abendua bitarteko epea besterik ez du hartzen, eta data horretan oraindik amaitu gabe izango dituzte prestakuntza eta lan programak. Aholkatzeko modukoa da, honenbestez, guztiz amaitu bitartean jarraitzea bermatzea.

Bestetik, programa gauzatzeko erakundeari ematen zaion kopurua (80 euro adingabe eta egun bakoitzeko), erakunde honen ustez, ez da nahikoa finantzatzeko. Izan ere, erakundeak kontratutik kanpoko finantzaketara jo behar du horrek dakarren gastuari aurre egin ahal izateko (enpresek eta pertsonak bere kabuz ematen dituzten diru laguntzak).

Familia Zuzendaritza Nagusiak berretsi digunez, kontratuaren arabera ematen den kopuru hori antzeko programetarako aurreikusita dagoen finantzaketa baino nabarmen txikiagoa da. Kontratu bidez ezarrita dagoenetik kanpoko finantzaketa bilatzen erakunde hartzaileak egiten duen ahalegina goraiatzeko modukoa bada ere, egokitzen hartzen dugu botere publikoek horrelako baliabideak bermatzea aurrekontuko diru hornidura handituta.

Aztertzen ari garen kasu honetan, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa da finantza baliabideak ematen dituen erakunde publikoa. Eta horiek ez badira nahikoak, eta hala dirudi, ez legoke batere soberan Foru Komunitateko Administrazioak ere aurrekontuko diru hornidura ematea horrelako programei.

4. PROGRAMARI BURUZKO IRITZI NAGUSIA.

Oro har, adierazi behar da Familia Zuzendaritza Nagusia eta erakunde hartzailea, Nuevo Futuro elkarteak, programa oso modu askiesgarrian gauzatzen ari direla. Oso gauza nabaria iruditzen zaigu bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren eskubideak –babes berezia behar duten adingabeak izanik- modu egokian bermatuak daudela. Komunitateko Administrazioak bere babespean ditu denak eta horien agindura jarritako zerbitzuek adingabe horien nortasuna egoki garatzeko bidea ematen dute; hain zuzen ere, aurreko ataletan aipatzen genituen alderdietan garatzeko bidea: heziketa, lan, osasun, gizarte... alderdietan.

Oro har oso ona den iritzi hori, gainera, adingabeek berek ematen duten iritziak berresten du, beraiek bete zituzten galdeketetan horixe adierazten baitute. Gehienek adierazi dute gustura edo oso gustura daudela zentroan eta interesa dutela gure lurraldean egoteko eta lan egiteko.

Alde batera utzirik esandakoa, begien bistakoa denez, badira hobetu daitezkeen zenbait alderdi. Nagusiki, eta nahiz eta ez den berariaz programaren kudeaketari eragiten dion alderdi bat, ezinbestekoa iruditzen zaigu programa guztiz gauzatzea bermatuko duen finantzaketa egitea. Horretarako, jakina, beharrezkoa izango da administrazio publikoek, Estatukoek edo Foru Komunitatekoek, konpromiso ekonomikoa bere gain hartzea. Beste alde batetik, ahalik eta azkarrena lortu behar da adingabeei beren bizileku eta lan baimenak berritzea, administrazioari dagokionez, legez egoten jarraitu ahal izateko.

Programa gauzatzeari eta kudeatzeari espezifikoki dagokionez, uste dugu badirela hobetu daitezkeen zenbait alderdi, lehenago aipatu direnak eta garrantzi txikikoak direnak. Alde batetik, lehenago esan dugunez, badirudi Familia Zuzendaritza Nagusian dauden dokumentuak, adingabeen bilakaerari buruzkoak, ez direla izan litezkeen bezain osoak (eta erakunde horri dagokio adingabe horien babes).

Beste aldetik, Administrazioaren eta erakunde kudeatzailearen arteko koordinazioa bultzatu behar da. Alde horretatik, kontratuak aurreikusten

badu ere jarraipena egiteko bilera sistematikoak egitea, hamabost egunean behingoak, ikusi dugu horiek ez direla horrela egiten.

Azkenik, egoitzaren baldintzei dagokienez, izenpetutako kontratuan aurreikusita zegoenaren arabera, gabezia txiki bat dagoela ikusi dugu. Izan ere, kontratuan aurreikusten zen nahitaezkoa zela logela bikoitzak edo banakakoak izatea, eta egiaz bi logela hirukoitz eta beste bi bikoitz daude. Nahiz eta izenpetutako kontratuarekin bat ez etorri, desberdintasun hori ez da zerbitzua arautzen duen araudiaren aurkakoa, horrek onartzen baititu logela hirukoitzak. Ulertzen dugu alderdi horrek ez diola funtsezko eran eragiten hartuta dauden adingabeen intimitateari eta nortasunaren garapen askeari, baina, esan dugun moduan, hobetu daitezkeen alderditzat jotzen dugu.

Alde batera utzirik esandakoa, errepikatu behar dugu, oro har, ez dugula programa gauzatzean Administrazioari edo erakunde kudeatzaileari egotz dakiokkeen gabezia adierazgarririk aurkitu. Aitzitik, egoki jotzen dugu nabarmentzea agudoki betetzen ari dela zaugarritasun bereziko egoeran dauden adingabe horiek babesteko betebeharra.

VI. FORU KOMUNITATEAN HARTUTA DAUDEN BIDAIDERIK GABEKO BESTE ADINGABE ATZERRITAR BATZUK.

Atal honetan erreferentzia egin behar diegu gure lurraldean bizi diren bidaiderik gabeko gainerako adingabe atzerritarrei. Kasu honetan, ez daude beraiantzat berariaz diseinatutako baliabide baten barnean, baizik eta babes emateko sistemaren ohiko baliabideetan eta “bidaiderik gabeko izatea” ezaugarria ez duten beste adingabe batzuekin bizi dira.

Adingabeen babeserako “ohiko” sisteman daudenez eta erakunde honek egindako aurreko txostenean aztergai izan zirenez, errealitate hori modu laburragoan azalduko dugu.

Esan den moduan, 7 adingabe besterik ez dira egoera horretan daudenak. Familia Zuzendaritza Nagusiak zegokien babesgabetasun adierazpena egin zuen, eta Foru Komunitateko Administrazioak horien babes bere gain hartu zuen. Beren nortasuna egiaztatzen duen sinestamendua dute denek (Atzerritarren Identifikazio Zenbakia).

Nuevo Futuro elkarteak lau adingabe hartu ditu, egoitza harreraren bidez, Iruñean eta Atarrabian dauden zaintzapeko edo babespeko etxebizitzetan. Lau horietatik hiru marokozkoak dira, eta laugarrena, kongoarra.

Lau adingabeak ikasten ari dira: bi lantegi eskoletara joaten dira, eta beste biak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari dira.

Beste bi adingabe Xilema elkarteak hartu ditu (egoitzan hartu ditu). Biak marokoarrak dira. Bat erdi mailako lanbide heziketa egiten ari da, eta bestea lanean hasi da, zurgintzan.

Azkenik, zazpigarren adingabea, marokoarra hori ere, Sin Fronteras elkartearen Felix Echegray egoitzan bizi da. Lanbide hastapeneko programa bat egiten ari da, igeltserotzakoa.

Beren gizarteratzeari dagokionez, Zabalgo zentroan bizi diren adingabeen kasuan arazorik ez badugu ikusi ere, orain aztertzen ari garen haue-tan egoerak askotarikoak dira. Adingabe horietako batzuk sufrikario eta utzikeria egoera larrietan egon izan dira eta ez dute familia laguntzarik. Honenbestez, gatazka handiagoak gerta litezke.

Nolanahi ere, uste dugu Foru Komunitateko Administrazioa eta erakunde kudeatzaileak modu eraginkorrean ari direla lanean, pertsona horien egoera konplexua samurtzen ahaleginduta.

VII. ADINGABEEN IRITZIA.

Aipatu diren ikerketa jardueraz gain, txosten hau egin ahal izateko gure komunitatean bizi diren eta babes publikoaren mende dauden bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrek berek duten iritzia eta ikuspegia kontuan hartu nahi izan da. Hain zuzen ere, hartzen ari diren arreta dela eta, adingabeek duten ikuspuntuaren berri izatea garrantzitsu iruditzen zitzaigun.

Helburu horretarako, hainbat alderdi edo atal zituen galdeketa bat prestatu zen:

– Sarrera. Bertan honako hauen gainean galdetzen zen: adingabearen adina, herritartasuna, sexua eta zein zentroan bizi den.

– Beren egoera pertsonalaren berri izateko zati bat (Espainiara iristea, babesa ematen dien pertsona edo erakundea ezagutzen ote duten, senitartekoekin harremanik baduten eta horietakoren bat Espainian bizi den).

– Zentroaren funtzionamenduaren gaineko iritzia galdetzeko zen beste zati bat (gustukoak diren alderdiak edo gustukoak ez direnak, pribatutasuna eta isilpekotasuna, zentroaren arauak, adingabea dela eta hartzen diren erabakietan parte hartu ahal izatea, adingabeak arazoak dituen jarraitu beharreko jarduketak, hobetzeko alorrak...).

– Egindako ikasketen, horien gaineko betetzearen eta ikusten dieten baliagarritasunaren gaineko informazioa emateko beste zati bat.

– Beste zati bat, bizi diren herrian edo hirian dituzten harreman pertsonalen berri izateko.

– Eta, azkenik, beren itzaropenen berri izateko zati (gure lurraldera iritsi aurretik zituztenak mukurutu ote diren, hemen bizitzen eta lan egiten gelditu nahi ote duten edo egunen batean jatorrizko herrialdera itzuli nahi ote duten).

Noski, jakitun gara adingabe atzerritarrek adierazitako nahiak eta iritzia adingabeek ohikoak dituztenak direla; honenbestez, kontuan hartu behar da duten alde idealista eta zuhurrak izan behar dugu zenbait ikuspuntu edo hobetzeko nahi balioestean, batzuetan nahi horiek bideraezinak baitira.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da, oro har eta beren egoerak berezko dituen baldintza logikoen abstrakzioa eginda, adingabeak pozik daudela dauden lekuaren baldintzekin, hartzen duten arretarekin eta egiten dituzten ikasketekin.

Sakon azertu nahi izan gabe, jasotako erantzunak direla eta aipagarriak iruditzen zaizkigun zenbait alderdi adieraziko ditugu ondoren.

– Adingabe gehienak txalupaz edo kamioi baten azpiko aldean heldu ziren Espainiara bertan lan egiteko asmoarekin.

– Gehienek dute telefono bidezko harremana gurasoekin edo senitartekoekin, astero edo hilero. Baina, adierazi dutenez, gutxi dituzte Espainian bizi diren senitartekoak.

– Deigarria da Zabalgo zentroan bizi diren adingabe guztiek ez jakitea beren gaineko babesa gauzatzen duen pertsona edo erakundea zein den. Gainerako adingabeek, ordea, badakite zein den erakunde hori. Dena dela, bakar batek zehazten du “Gizarte Ongizatea” dela.

– Zabalgo zentroaren kasuan, mutil guztiek ontzat jotzen dituzte, bai zentroko giroa, eta bai beren kideak ere. Gainerakoen kasuan, ordea, hori ez da horrela: emaitzak bestelakoak dira. Gutxi gorabehera galdeketa egindakoen erdiek adierazten dute ez dutela gogoko zentroaren giroa edo kideena. Beharbada, erakunde kudeatzaileekin egindako elkarrizketetan adierazi ziguten moduan, azken adingabe horien kasuan, beren bizitzan utzikeria egoerak bizi izan dituzte eta ez dute familia proiekturik, honenbestez, desadostasuna adierazten dute eta liskarrak ohikoagoak dira.

– Zentro guztietan dituzte gogoko hezitzaileak, eta estimu handitan dituzte.

– Adingabeek adierazi dute gustura daudela beren logeletan, nahiz eta partekatu egin behar

dituzten eta ez duten pribatutasun handiagoa izateko aukerarik.

– Gainera, azaltzen dutenez, badakite zein diren zentroen arauak eta horiek ez betetzeak dituen ondorioak, eta, era berean, kexarik izanez gero jarraitu beharreko prozedura –kasu horietan hezitzailearengana edo baliabidearen koordinatzailearengana jo behar dute-. Ez dute desadostasun berezirik ageri arau horien gainean, jakina den moduan, batzuek malgutasun handiagoa izatea nahiko balute ere, batik bat, ordutegien eta ateraldien gaian. Kexa hori ez zaigu adierazgarria iruditzen, edozein adingabek izan dezakeena baita.

– Adingabe gehienek adierazten dute beren gaineko erabakiak hartu behar direnean iritzia eskatzen dietela. Adierazi den moduan, oro har, gustura edo oso gustura daude zentroetan. Dena den, baten batek adierazi du bertan bizi dela beste irtenbiderik ez duelako.

– Bi salbuespen izan ezik, pozik daude egindako ikasketekin, eta hartu duten prestakuntza etorkizunean lan egiteko baliagarria izango zaiela uste dute.

– Bizitzeko herriari edo hiriarri dagokionez, hiru adingabek adierazi dute ez dutela gogoko Zabalen bizitzea. Gainerako adingabeak gustura daude beren inguru hurbilean. Beste herritar batzuekiko harremana eta herrian egiten diren jardueretan parte hartzea dela eta, erantzunak oso desberdinak dira.

– Azkenik, nabarmendu behar da gehienek nahi dutela Espainian bizi eta lan egin, baina, hala ere, etorkizunean beren jatorrizko herrialdera itzuli nahi dutela.

Ondorio moduan, adingabeen iritzia horiei emandako arreta egokia eta eraginkorra dela berresten duela uste dugu.

VIII. HERRI-SALATARITZAREKIN KOORDINATZEA.

Bai Kode Zibilak eta bai adingabearen legezko babeserako 1/1996 Lege Organikoak, urtarrilaren 15ekoak, adingabeen eskubideak, oro har, zaintzeko eta babesteko funtzioen ardura ematen diote Ministerio Publikoari.

Modu zehatzago batean, Espainian atzerritarrek dituzten eskubideen eta askatasunen gaineko 4/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 11koak, bidaiderik gabeko edo dokumenturik gabeko adingabe atzerritarrek direla eta, ministerio horren esku-hartzea agintzen du eta, gainera, adierazten du dagokion informazioa eman beharko zaiola.

Honenbestez, guztiz beharrezkoa da adingabeak babesteko zerbitzuen eta Herri-salataritzaren arteko funtzioak koordinatzea. Koordinazio hori egiten dela egiaztatzeko asmoz, bidezko jo genuen Adingabeen Herri-salataritzarekin elkarrizketa izatea.

Horren ondorioz, berretsi genuen, lehenbizi, gure komunitatean bizi diren bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren kopurua –Familia Zuzendaritza Nagusiak emandako kopurua- Herri-salataritzan dituzten datuekin bat datorrela.

Era berean, ikusi genuen, Foru Administrazioak adingabearen babesgabetasun adierazpena egin duela eta babes bere gain hartu duela jakinarazi zaiola herri-salataritza horri.

Beste alde batetik, jakinarazten digute ez dela itzidientzia garrantzitsurik edo arazotsurik ikusi adingabe horien jarraipenean. Herri-salataritzak jakin duenez, bakarrik denbora tarte jakin batzuetan (San Fermin jaietan) egon dira bidaiderik gabeko eta babes sistematik at dauden adingabe atzerritarrek hemen. Hala ere, adingabe horiek aldi baterako Behaketa eta Harrera Zentroetara igorri dituzte eta ondoren beren jatorrizko lurraldeetara.

Azken batean, ez dugu akatsik edo gabeziarik ikusten Foru Komunitateko Administrazioaren eta Ministerio Publikoaren arteko funtzioen koordinazioan.

IX. ONDORIOAK ETA IRADOKIZUNAK.

1. Lehenbizi, bidezkoa da nabarmentzea txosten honetan aztertutako errealitatearen hedadura, hau da, bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren presentzia Nafarroako Foru Komunitatean, txiki samarra dela. Alde horretatik, talde horrek Nafarroan egiten duen migrazio presioa txikiagoa da beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta.

2. Gure lurraldean dauden bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren eskubideak eta askatasunak errespetatu egiten dira eta, oro har, Foru Komunitateko Administrazioak eta, bereziki, Familia Zuzendaritza Nagusiak egoki babesten dituzte.

3. Aurrekoarekin lotuta, esan behar da ez dela gabezia adierazgarri ikusi babes sisteman. Bereziki egokia da nabarmentzea, bidaiderik gabeko adingabe atzerritar guztien kasuan, babesgabetasun erabakiak hartu direla eta ondotik adingabeen babesaren gaian eskumenak dituen organoak, Familia Zuzendaritza Nagusiak, horien babes bere gain hartu duela.

4. Erakunde laguntzaileak administrazio kontratu baten bidez daude lotuak Foru Komunitateko Administrazioari. Adingabe horiek hartzeko eta

zaintzeko erakunde horiek egiten duten lana oso ontzat jo behar da.

5. Era berean, Ministerio Publikoarekin egiten den koordinazio lana modu egokian egiten dela ulertzen dugu.

6. Bidezko jotzen dugu Foru Komunitateko Administrazioari gomendatzea, ahal duen neurrian, migrazio presio handiagoa duten beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzan aritzen jarrai dezala, bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrek babesteko programak gauzatzen. Lankidetzan hori koherentea da elkartasun printzipioarekin, eta, Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan (1. artikulua) ezarritakoaren bertutez, legez bete beharrekoa da.

7. Era berean, egoki jotzen dugu Familia Zuzendaritza Nagusiari hertsiki eskatzea, Barne Ministerioarekin egin beharreko izapideak bideratu ondotik, berma diezaiela bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei programa osorik amaitzea, adingabe horien prestakuntza osoa lortuta.

8. Bestalde, adingabeen babesa gauzatzen duenez, hertsiki eskatu behar zaio Familia Zuzendaritza Nagusiari egin ditzala beharrezkoak diren kudeaketak hartutako adingabe horiek bizileku eta lan baimenak berriro ditzaten, berek hala nahi badute, gure lurraldean gelditzeko aukera izateko.

9. Aintzat harturik bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren programa finantzatzea egun soil-soilik Estatuaren Administrazioari dagokiola eta baliabidea kudeatzen duen elkarteari ematen zaion kopurua baliabide horrek sortzen dituen premiak baino txikiagoa eta babes sistemako antzeko baliabideei dagokien kopurua baino txikiagoa dela, lortu behar da kopuru hori emendatzea eta, beharrezkoa bada, Foru Komunitateko Aurrekontu

Nagusien kontu egin behar da. Gomendio hori egiten da programa osorik eta zuzen egitea ez egoteko erakunde kudeatzaileak finantza baliabideak eta baliabide materialak lortzearen mende.

10. Erakunde honen iritziz, komenigarria da emantzipazio edo helduen bizimodura igarotzeko programak ezartzea. Hartara, adinez nagusi direnean, egoerak horretarako bidea ematen badu, bizimodu independentea izateko pertsona horiek duten gaitasuna osatzeko zenbait zerbitzu eta baliabide ematen jarraitu ahal izango da.

11. Egokia dirudi Familia Zuzendaritza Nagusiak bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren egoeraren jarraipena egiteko lana indartzea, bakoitzaren nondik norako pertsonalak eta bilakaera xehetasun handiagoarekin jakiteko asmoz.

12. Aurreko gomendioarekin lotuta, egoki jotzen dugu, alde batera utzirik zaintzeko eta hartzeko lana, hurbiltze handiagoa izatea adingabeen eta Familia Zuzendaritza Nagusiaren artean, adingabe horiek adierazi dutenez ez baitakite nork duen beren gaineko ardura.

13. Familia Zuzendaritza Nagusiak eta Nuevo Futuro elkarteak izenpetutako kontratua gauzatzean ikusitako desegokitasun arinak zuzentzen saiatu behar da (txosten honen V.4 atalean egin zaie erreferentzia).

14. Amaitzeko, gomendagarria dela uste dugu Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babes Zerbitzuaren mende dagoen langile zerrenda indartzea. Izan ere, txosten hau egin behar genuela eta, eta erakunde honek aurkeztu zuen aurrekoan adierazi genuen moduan (adingabeak babesteko Nafarroako administrazio publikoen jarduna aztertzen duena, hain zuzen), zerbitzu horrek lan zama handiegia du egun dau den esku-hartze premiei erantzun ahal izateko.

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 47,00 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Navas de Tolosa, 1</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	--